



LIBURUA

# Zergatik poesia



TERESA SANTOS

## ITZULTZEKO ETORRI NAIZ

### FELIPE JUARISTI

BALEA ZURIA, 2021

IGOR ESTANKONA

**F**elipe Juaristiren lirika ezagutzen duen edozeinek badaki bere fineziaz, bere erudizioaz. *Itzultzeko etorri naiz* honetan (Balea zuria, 2021) hausnarketa gogoangarriak daude poemene eiteaz: “Baldin eta poesia idatzi behar dela erabakitzen bada, ez da nahikoa kai bakarti bateko aulki batean eseri edo, aukeran, mendi goi eta urruneko belartzan etzan eta zeruertzari begiratzeari, arratsaldean batez ere, zerua gorrimintzen hasia denean eta hodeiek suzko ardiak diruditenean. Eta poesiari buruz ari dela ezin dio poetak poesia egiteari utzi”.

Basho, Yourcenar, Heraklito, Aresti, Kant, Zweig, Adorno, Kafka, Spinoza, nik zer dakit nor gehiago, denak jartzen ditu berbetan Juaristik, denei eskatzen die

idatz diezaioten saiakera bat poesiari buruzkoa, idazkuntzaren gainekoa. Liburu honen bidez batek egin dezake *stop*, pentsa dezake zer ari den idazten edo irakurtzen. Literaturari buruzko literatura gozoa proposatzen digu, alfabeto baten antzera ordenaturiko nahas-mahasean kausituz zenbait klabe: “Surrealistek hitzak paperaren gainean idazten dituzte, barnean daramaten kaosetik aterata bezala; ez dituzte ordenatzen, haienzat kaosa ordena baita”.

Felipe Juaristik xehe-xehe azaltzen digu zelan bizi duen berak literaturaren kate luzearen begi txikia izate hori. Aurretik izan zirelako baikara gu ere idazle. Poesiaren zaleek kausituko dute zenbait koordinatu historiko zein estetiko. Era berean, gizakiaren betiko hainbat gal-

dera ere pausatzen dira, literaturaren eta filosofiaren mugetan. Izan ere, *Itzultzeko etorri naiz* horixe da, akabu bako bidaia zirkular bat, problemak aurkitu ahala erantzunak asmatzen dituen, bide ez-konbentzionalak erabiliz: “Yves Bonnefoi poetak dio Celanen suizidioak bazuela esperantzaren distira. Hitzak berak, azkenik, gorpu bilakatzen baitira, eta gorpuen modura badoaz heriotzaren ibai beltzak eramanak, ezerezer”. Egia metaliterario asko lehenengoz ikusi ditut nik hemen, arkeologia bat delako liburu hau, teoria kritikoa literatur kritikariontzat. Ez uste, ordea, jasoa edo garaia denik, ez. *Itzultzeko etorri naiz* gozamen eta arintasun hutsa da, hasi eta buka. Literaturaren teoria ezta, hasi eta buka. ●